

2024/07/23an EGINDAKO EZOHIKO  
OSOKO BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO  
DE LA CORPORACIÓN. Día 23/07/2024.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese  
Xabier Uriarte Iñurrategi  
Irati Iglesias Pozo  
Mikel Luengo Gabarain  
Dorleta Sologaitoa Aguiriano  
Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sajeras  
Puri Regidor Varela  
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

**EDURNE ITURBE LASKURAIN**

Eskoriatzan, 2024ko uztailaren 23an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Edorta Barandiaran García.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 23 de julio de 2024, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Edorta Barandiaran García.

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2024/06/27an egindako osoko bilkurako akta onartu da. .

### **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2024ko uztailaren 16ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Berriaz eman da 14., 15. eta 16. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

### **3.- UDAL LANGILEEI 2024an APLIKATU BEHARREKO SOLDATA IGOERA ONARTZEA.**

Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorritik, eta "Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurri jakin batzuk luzatzen dituen eta zerga, energia eta gizarte arloko premiazko neurriak hartzen dituen ekainaren 26ko 4/2024 Errege Dekretuaren" 6. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin onartzea langileen ordainsarien % 2ko igoera 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.

**BIGARRENA.-** Lanpostuen zerrenda erabaki honen ondorioz ateratzen diren zenbatekoei egokitzea.

**HIRUGARRENA.-** Igoera horiek 2024ko uztaileko nominan ordaintzea.

### **4.- 17/2024 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.**

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena bototara jarri da. Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 17/2024 espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Gastuen partida	I. Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0300.622.342.20.01 2024	KIROLDEGIA	366.178,09	300.000,00	666.178,09
1 0400.622.323.40.01 2024	LUIS EZEIZA IKASTETXEA	200.145,33	150.000,00	350.145,33
<b>GUZTIRA</b>		566.323,42	450.000,00	1.016.323,42

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2024	DIRUZAINZAKO GERAKINA: GASTU OROKORRETARAKO	450.000,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>450.000,00</b>

### KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina.
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea hamabost eguneko epean, nahi duenak erreklamazioak jar ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

BOTO AZALPENA :

Josu Ezkurdiak esan du bere taldearentzat albiste ona dela, kiroldegiko gimnasioaren proiektuarekin gertatu den bezala, aurreko legegintzaldian beraiek martxan jarri zuten beste proiektu batekin aurrera jarraitzen delako, eta uste dutela bi proiektuak oso garrantzitsuak direla Eskoriatzaren etorkizunerako. Hori dela eta, pozten direla eta aldeko botoa emango dutela azpimarratu du.

2024/07/23  
Ez Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Extraordinaria

## **5.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILTZAK JARRITAKO ERAGOZPENAK (2024ko apirila-ekaina).**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2024ko apirilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

*4/2024 ERAGOZPENA: Buzoneoa, San Pedro jaietako programari buruzko informazioa. Ez dago fakturarik (140,00 €).*

*5/2024 ERAGOZPENA: Buzoneoa, MATXISMOARI PLANTO PROTOKOLOA programari buruzko informazioa. Ez dago fakturarik (20,00 €).*

*6/2024 ERAGOZPENA: San Pedro jaietarako bonbonak erostea. Ez dago fakturarik (147,00 €).*

*ERAGOZPENA Kuartuena eremuan Deba ibaiaren azterketa hidraulikoarengatik INDEMNIZATUTAKO ZENBATEKOAREN AURREAN.*

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

### **ESANDAKOAK:**

Josu Ezkurdiak, 6.812 euroko zenbatekoa denez, harritu egin direla esan ondoren, azalpenak eskatu ditu idazkaritza-kontu-hartzaitzak Kuartueneren eremuan Deba ibaiaren azterlan hidraulikoaren ordainketari buruz jarritako eragozpenari buruz.

Alkateak azaldu du partikular batek egin behar izan duela azterlan hori, bere jabetzako lurzatian garaje bat eraiki ahal izateko. Gero, honako hau esan du: "Plan Hidraulikoa idazteko enkargua eman zuenak Udalari eskatu dio kalte-ordaina emateko, Plan hori Udalak egin behar zuela uste duelako, hau da, Plan Partziala izapidetu zenean, Plan Hidrauliko hori Kuartueneren eremua hirigintza aldetik garatu zenean egin behar zela, eta Plan Hidrauliko horrekin eraikitzeke dauden etxeek ez dutela beste bat egin beharko, horrek balioko dielako. Guk (gobernu-taldeari buruz ari da) arrazoia duela uste dugu. Bere garaian udal arkitekto aholkulariak egindako txosten bat dago, eta uste dut horren berri eman zela, ezta Edurne? (Idazkariak erantzun dio ez dakiela txosten hori zinegotziei helarazi zitzaizen ala ez) Beno, arkitektoak txosten bat egin zuen eskaera horri buruz, eta bertan jakinarazi zuen Udalak, beharbada, hasiera batean, ez zuela zertan ordaindu behar Plan Hidrauliko hori, baina posible ikusten zuela, etorkizunean beste jabe batzuek hura aprobeitza zezaketelako.

Josu Ezkurdiak: orduan, Plan hau partikular bati ordaindu zaio gai partikular batengatik, eta hirigintza-txostenaz gain, kontu-hartzaitzaren txosten bat dago, non ordainketa hori bidegabetzat jotzen den. Laburbilduz, kontua da Udalak ez zuela zertan ordaindu, eta ordaindu egin duela.

Alkatea: Idazkaritzaren txostena hor dago, guk uste dugu partikularrek arrazoia duela, uste dugulako plan hori Udalak egin behar zuela bere garaian.



Josu Ezkudia: baina juridikoki ez da horrela. Hori zuen iritzia izango da, baina ikusten denez, ez da legezkoa. Hori da galdera, legezkoa ote den.

Alkatea: juridikoki legezkoa izan dela uste dut.

Josu Ezkurdia: baina idazkariak eragozpenik jarri badu, legezkoa ez delako da.

Idazkariak adierazi du txosten bat egin duela, non ondorioztatzen den bere ustez ordainketa ez dela bidezkoa.

Alkatea: beno, idazkaritzaren txostena dago, baina gure ustez bere garaian Udalak berak izapidetu behar zuen Plana da.

Amaitzeko, idazkariari eskatu diote Josu Ezkurdia bidaltzeko arkitektoaren txostena eta idazkaritza-kontuhartzaitzarena.

## **6.- UDAL LOKALA PREKARIOAN LAGATZEA OLAZAR JUBILATUEN ELKARTEARI.**

Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** “OLAZAR JUBILATUEN ELKARTEARI” doan eta prekarioan uztea Hidalga kaleko 1 zenbakian dauden hainbat udal lokalen erabilera, jarduera administratiboak eta elkartearen ekintzak egiteko.

**Bigarrena.-** Lokalak urtebeterako lagatzen dira, honako baldintza hauekin:

- 1.- Lokalak 2025eko irailaren 1era arte lagatzen dira, eta luzatu ahal izango da 5 urte igaro arte (2029-09-01 arte).
- 2.- Olazar elkarteak ondorengo lokalak erabili ahal izango ditu: 2 gela (1. solairuko funtzio anitzeko gela (txistulariekin konpartituta), eta taberna ondoko karta-gela), sukaldea, bulegoa eta podologoaren gela. Lokal horiek Olazar elkartearen ekintzetarako eta administrazio lanetarako erabili ahal izango dira.
- 3.- Lokalak egoera onean zaintzeko betebeharra du Olazar elkarteak, erabilera ez egokiagatik sortutako konponketak bere gain izango dira eta, kontratua amaitutakoan, jasotako egoera berean itzuli beharko ditu lokalak. Ezingo du obrarik egin aurrez Udalaren baimenik gabe.
- 4.- Interes publikoko arrazoiengatik Udalak lokalak berreskuratu nahi izanez gero, zilegitasuna du lagatuko lokalak beste batzuegatik aldatzeko.
- 5.- Udalaren kontura izango dira argindar, telefono, ur eta beste lokal batzuekin partekatutako lekuak (korridore, komun...) garbitzeko gastuak. Sukaldea garbitzea Olazar elkartearen kontura izango da.
- 6.- Udalak, izaera berarekin eta dokumentu honetan lokalentzat ezarritako baldintza beretan, ondorengo altzarien erabilera lagatzen du:
  - Bulegoa: mahai bat, 2 aulki birakari eta 6 aulki.
  - Podologoaren gela: mahai bat, aulki 1, banketa bat eta “kamilla” bat.
  - Sukaldea: 2 mahai eta 20 aulki (1 konpontzeko).

- Funtzio anitzeko gela.
- Karta-gela: 4 mahai eta 20 aulki.

7.- Lokalak prekarioan jasotzen dituen elkarteak bere burua behartzen du egunean izatera bere jardura egiteko beharrezko diren osasun, lan, hezkuntza, ogasun edo beste edozeinen arloko erakunde eskudunen lizentzia eta baimenak eta baita erantzukizun zibileko aseguruia egitera ere.

8.- Lagatako lokaletan antolatuko diren ekintzak direla-eta sortzen diren komunikazio guztiak euskaraz edo ele bietan izango dira, bai idatzizkoak (kartelak, esku-orriak, oharrak...) bai ahozkoak (bingoa, ekintzen aurkezpenak...). Gainera, bi hizkuntzetan eginez gero, euskarari emango zaio lehentasuna.

Olazar Jubilatuen Elkarteak Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza izango du argitaratu beharreko edozein testu itzuli edo zuzentzeko.

9.- Erakunde onuradunak genero ikuspegia txertatuko du antolatzen dituen ekintzetan eta bereziki zainduko du komunikazio ez-sexista bideratzeko irizpideak aplikatzea.

10.- OLAZAR ELKARTEA zuzenbide pribatuko eta irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta inolaz ere ez dago Udalaren menpe, eta Udalak ez ditu zuzentzen lokalean egin beharreko ekintzak, eta ez du bere esku utzi eta ez dio ere inolako onespenerik edo baiezkorik eman; bakar bakarrik lokala lagatzen du, eta beraz, ez du bere gain hartzen ez zuzenean ez modu subsidiarioan edozein motako ekintzak egiteagatik edo ez egiteagatik lokalean gerta daitezkeen kalte materialik, pertsonalik edo moralik.

11.- Kontratua urtero luzatuko da, alde bietako batek ez badu salaketarik jartzen behintzat. Salaketa jartzekotan, kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago egin beharko da.

12.- Prekarioan lagatze hori iraungitzat joko da Udalak, aurrez eta hilabeteko aurrerapenarekin, elkarteari lokalak erreklamatutakoan edo elkarteak lokalak itzulitakoan. Era berean, kontratu hau automatikoki iraungitzeko arrazoia izango da lokalak hemen aipatu ez den beste erabilera baterako erabiltzea.

**Hirugarrena.-** Aurreko puntuetan finkatutako baldintzak jasotzen dituen kontratua formalizatzea eta Alkateari ahalmena ematea Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkaritzan kontratua formalizatzeko.

## **7.- ITSARAZ PARKE EOLIKOAREN PLAN BEREZIA IZAPIDETZEKO EZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

DESARROLLOS RENOVABLES IBERIA OMICRON S.L. enpresak Itsaraz parke eolikoaren Plan Berezia izapidetzeko eskaera idatzkia aurkeztu zuen Eskoriatzako Udalean 2024ko apirilaren 26an (24-01095 zenbakidun sarrera). Idatziak bi eranskin zituen: bata, Aramaio (Araba) eta Eskoriatza (Gipuzkoa) arteko Itsaraz Parke Eolikoaren Plan Bereziaren zirriborro-dokumentua, 2024ko urtarrilean Larraitz Sasiain arkitektoak eta Marcos Segurola (KREAN S. COOP.) geografo urbanistak idatzia, eta, bestea, 60,4 MWko Itsaraz Parke Eolikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan dituen azpiegituren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren Hasierako Dokumentu Estrategikoa, SAITEC Engeeringek 2024ko otsailean idatzia. Dokumentu biak DR Iberia Omicron S.L.U.k (Statkraft taldea) sustatutakoak dira.

Kontuan hartu beharrekoak:

**LEHENENGOA.-** Txosten juridikoaren arabera eta aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta, proposatutako Itsaraz parke eolikoa Aramaion (Araba) eta Eskoriatzan (Gipuzkoa) dago. Ebakuazio-azpiegitura honako hauek osatzen dute: Aramaion jarri beharreko azpiestazio elektriko batek eta Aramaiotik (Araba), Arrasatetik (Gipuzkoa), Atxondotik, Elorriotik eta Abadiñotik (Bizkaia) igarotzen den goi-tentsioko linea batek, Abadiñon dagoen azpiestazio elektriko batekin (Iberdrola Distribución enpresaren jabetzakoa) konektatu arte. Beharrezkoak dira ere obra garrantzitsu batzuk egitea Legutioko, Arratzua-Ubarrundiako eta Aramaioko (Araba) lurretatik igarotzen diren sarbideak egokitzeko.

**BIGARRENA.-** Txosten horren arabera, Itsaraz PEko ebakuazio-trazadurak 13,89 km-ko aireko linea elektrikoa du, 46 euskarrik eutsita; eta 0,48 km-ko lurpeko linea, Abadiñoko azpiestaziorako azken zatiari dagokiona.

**HIRUGARRENA.-** Aurkeztutako Plan Bereziaren Memoriak jasotzen du Parke Eolikoaren eremuaren mugaketan ez dela sartzen ebakuazio-linea, eta honako hau dio:  
Aurkeztutako Plan Bereziaren memoriak honako hau jasotzen du:

**"ENERGIA ELEKTRIKOA EBAKUATZEKO LINEA**

*Ebakuazio-lineari dagokionez, linea horrek ez du lurzorua erabilerara aldatzen, eta zortasun bat sortzen du; beraz, proiektuak ez du alde aurreko hirigintza-zonakatzea aldatu behar.*

.....

*Plan Bereziaren xedea da mugatutako eremua xehetasunez antolatzea, eta ebakuazio-lineak ez badu aldatzen lurzorua erabilerara, ez du zentzurik Plan Bereziaren eremuaren mugaketan sartzeak. Hasiera batean onartutako Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak berak, instalazio eolikoa edo fotovoltaikoa eta linea elektrikoak bereizten ditu, eta ezartzen du ebakuazio-linea elektrikoak ez direla zonakatzearen gai, eta horien balorazioa proiektuaren eskalan egin behar dela xehetasun espezifikoak zehaztuta daudenean".*

**LAUGARRENA.-** Plan Bereziarekin batera doan Hasierako Dokumentu Estrategikoak berak adierazten duenez, azpiegitura guztiak jasotzen ditu:

**"3.1 Plan Bereziaren ezaugarrien deskribapena:**

- *Plan Bereziaren ezaugarrien eta ekintzen deskribapenak lotura estua du Plan Berezi horren bitartez hirigintzaren aldetik integratu nahi den parke eolikoaren ezaugarriekin.*
- *Horregatik, Plan Berezia onartzeak ekarriko dituen ingurumen-ondorio estrategikoak behar bezala ebaluatzeko, parke eolikoaren proiektu osoa aipatu behar da, Plan Berezi horrek babestuko duena. Hau da, ingurumen-ondorioetarako, proiektuaren ezarpenetik eratorriko diren azpiegitura guztiak aurreikusten dira horien azterketa estrategikoa egiteko, dagoeneko hasita dagoen proiektu horren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren izapide independentean egiten ari den proiektuaren eskalako analisiaren kalterik gabe.*
- *Horrela, antolamenduaren xede den parke eolikoaren proiektuak honako elementu nagusi finko hauek ditu:*

- Aerosorgailuak.
- Linea elektrikoa.
- Bideak.
- Plataformak.
- Drainadura.

### 3.2 Ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak.

*Itsaraz PEa osatzen duten elementuen deskribapen teknikoan aipatu den bezala, ingurumen-azterketa honetan parke eolikoa osatzen duten azpiegituretako edozein ezartzeak (ebakuazio-linea barne) eragindako faktoreak hartu dira kontuan. Faktore horien artean dago Plan Bereziak aerosorgailuen ezarpen-eremuaren eta Itsaraz SETen antolamendua soilik egitea. Hori horrela da, Itsaraz Plan Estrategikoak ingurumenari oro har eragingo dizkion eraginen irudi errealista izan behar duela uste baita. Nahiz eta Plan Bereziaren antolamenduaren xede hertsia ez diren zati batzuk egon".*

**BOSGARRENA.-** Egindako txosten juridikoak dioenaren arabera —energia elektrikoko instalazioen garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta hornidura-jarduerei eta baimen- eta segurtasun-prozedurei buruzko araudiak (abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua eta otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretua)—, argi dago Plan Bereziak antolatzen duen azpiegiturari lotutako linea elektrikoek aldaketak eragiten dituztela igarotzen diren eta eragiten dieten lurzoruen erabilera-erregimenean.

**SEIGARRENA.-** Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio-eremuari buruzko artikuluan (6. artikulua), ezartzen du ebaluazio hori bidezkoa izango dela, besteak beste, planek eta programek "*ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta honako arlo hauei buruzkoak badira: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, akuikultura, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, ur-baliabideen kudeaketa, itsas-lehorreko jabari publikoaren okupazioa, itsas ingurunearen erabilera, telekomunikazioak, turismoa, hiri- eta landa-lurraldearen antolamendua, edo lurzoruen erabilera*".

Eta, zentzu berean, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II-A-6 eranskinak ere, ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaien plan eta programen zerrenda jasotzen duenak, ildo beretik jotzen du, eta ezartzen du ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaiela ingurumen-ebaluazioa beharko duten proiektuak baimentzeko esparru izango diren plan guztiei.

**ZAZPIGARRENA.-** Aipatu txosten juridikoaren arabera, Itsarazko energia eolikoaren proiektuarekin lotutako ebakuazio-lineen proiektuen esparrua, nahitaez, lurzoru urbanizaezinean azpiegitura hori ezartzeko behar diren erabilerak xehetasunez ordenatzeko plan berezia izan behar da.

**ZORTZIGARRENA.-** Ondorioz, Plan Bereziaren erreferentziak, aipatzen duenak ebakuazio-linea elektrikoak ez direla sartzten proiektuaren fasean ebaluatuko direlako, aurrez aurre talka

egiten du indarrean dagoen ingurumen-legediaren aurreikuspenekin —aipatutako 21/2013 eta 10/2021 legeekin—, eta ezin du babestu Plan Bereziak ez jasotzea instalazio guzti-guztiak, hasi aerosorgailu eta ebakuazio-linea elektrikoetatik eta sarbideetaraino. Bestela, Plan Bereziaren antolatzen ez diren instalazioak garatzeko hirigintza-estaldurarik gabe geratuko lirateke, eta ezingo lirateke ingurumenaren aldetik ebaluatu, egikaritzea ezinezko bihurtuz.

Ebakuazio-lineei dagozkien lurzoruen mugaketa Plan Bereziaren ez sartzeko Plan Bereziaren Memoriak emandako argudioa ez dator bat HDEekin berarekin. Izan ere, HDEk egiten du ebakuazio-lineen ingurumen-ebaluazioa, eta horrela jasotzen da goian adierazitako 3.1 eta 3.2 ataletan, nahiz eta horiek ez diren antolatu aipatutako Plan Bereziaren.

Nolanahi ere, onartezina da plangintza-dokumentuan ordenaziorik jaso ez duten azpiegiturak ingurumenaren aldetik ebaluatzea. Beraz, galde daiteke zein linea eta dorre ebaluatu diren, ez badago ez antolamendurik ez aurreikuspen zehatzik plangintza-dokumentuaren babespean. Inkongruentzia horrek agerian uzten du, ordea, ebakuazio-linea eta haren elementuak, instalazioaren elementu guzti-guztiak, ebaluatu behar direla, horrela egin beharra baitago Argudio-ildo beretik, Plan Bereziak aintzat hartzen duen jarduera-eremua ikusi besterik ez dago: ameba luzanga formako zerrenda bat, aerosorgailuak lotzen dituen, jarraitutasun-irtenbiderik gabe. Hau da, ez da aerosorgailuen okupazio-eremu hertsia kontuan hartu; aitzitik, instalazio bertikalen proiektio bakoitza garatzen den eremu jarraitu bat aurreikusi da.

Plan Bereziak zehatz-mehatz jaso eta antolatu behar ditu proiektuarekin lotutako instalazio guztiak: sortutako energia eramateko erabili behar diren aireko edo lurpeko ebakuazio-linea berri guztiak eta instalazio eta aireko edo lurpeko linea horiek guztioriek beharko dituzten bide eta sarbide berri guztiak.

**BEDERATZIGARRENA.-** Behin eta berriz errepikatu den jurisprudentzia-doktrinarekin bat etorriz, Planak izapidetzeko eskubidea hautsi egiten da, proiektatutako Planak argi eta garbi urratzen badu indarrean dagoen hirigintza-antolamendua —hala nola, goragoko mailako planak edo zuzenean aplikatzekoak diren lege-arauak—; izan ere, kasu horretan, proiektua hasieratik baztertzen da ekonomia eta logika arrazoiegatik, izapidearekin jarraitzea bideraezina edo alferrikakoa delako.

Antzemandako akatsak ezin badira konpondu edo ordeztu prozedura gauzatzen den bitartean, juridikoki bidezkoa da dokumentua izapidetzeko ez onartzea.

Izapidetzeari bide ez emateko funtsezko eragozpena da aurkeztutako dokumentuak, argi eta garbi eta agerian, urratzen dituela zuzenean aplikatu beharreko lege-arauak, bereziki, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea, bertan antolatu eta arautu gabeko lurzoruei eta eremuei eragiten dienean.

Aurrez esandako guztiarengatik, Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako EH BILDUKO 7 udalbatzarkidek alde bozkatuta, eta bertaratutako EAJ/PNVko 4 udalbatzarkideak abstenituta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

2024/07/23  
**Ez Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Extraordinaria



EZ ONARTZEA tramitatzeko 2024ko apirilaren 24an aurkeztutako Aramaio (Araba) eta Eskoriatza (Gipuzkoa) arteko Itsaraz Parke Eolikoaren Plan Berezia, benetako oinarririk ez dagoela jotzen baita; izan ere, planak ez du jasotzen xede osoa eta arautzen dituen instalazioei lotutako eremu guztiak, bereziki, ebakuazio-linea elektrikoak, bideak, sarbideak eta Itsaraz parke eolikia garatzeko ezinbestekoak diren gainerako elementuak. Azken batean, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II-A.6 eranskinean oinarrituta, ezin da egon ingurumen ebaluazioa behar duen azpiegiturarik, aldez aurretik ingurumen-ebaluazio estrategikoa behar izan duen planeamenduan oinarritzen ez bada.

#### **8.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:20ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

### **1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 27/06/2024.

### **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 16 de julio de 2024.

De forma expresa se da traslado de las resoluciones por las que se aprueban los expedientes de modificación de créditos N° 14, N° 15 y N° 16.

### **3.- APROBACIÓN DE INCREMENTO RETRIBUTIVO PARA EMPLEADO/AS MUNICIPALES APLICABLE EN 2024.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda y al amparo de la previsión contemplada en el art. 6 del "Real Decreto -Ley 4/2024, de 26 de junio, por el que se prorrogan determinadas medidas para afrontar las consecuencias económicas y sociales derivadas de los conflictos en Ucrania y Oriente Próximo y se adoptan medidas urgentes en materia fiscal, energética y social", el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

**PRIMERO:** Aprobar el incremento de las retribuciones del personal municipal en un 2% respecto a los vigentes a 31 de diciembre de 2023, con efectos desde el 1 de enero de 2024.

**SEGUNDO:** Adecuar la Relación de Puestos de Trabajo a los importes resultantes del presente acuerdo.

**TERCERO:** Hacer efectivos dichos incrementos en la nómina correspondiente al mes de julio de 2024.

### **4.- EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CREDITOS N° 17/2024 .**

Se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Visto el informe emitido desde secretaría intervención, se somete a votación la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda. Con el voto a favor de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales, nº 17/2024 que afecta al Presupuesto de este AYUNTAMIENTO del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

Partida de gastos	II. Concepto	Créditos		
		Actuales	Modificación	Definitivos
1 0300.622.342.20.01 2024	KIROLDEGIA	366.178,09	300.000,00	666.178,09
1 0400.622.323.40.01 2024	LUIS EZEIZA IKASTETXEA	200.145,33	150.000,00	350.145,33
<b>TOTAL</b>		566.323,42	450.000,00	1.016.323,42

Cod.	Partida	Concepto	Cantidad
a	2 0200.870.000.00.01 2024	REMANENTE DE TESORERÍA: PARA GASTOS GENERALES	450.000,00
<b>FINANCIACIÓN TOTAL</b>			<b>450.000,00</b>

### DESCRIPCIÓN DE LOS CÓDIGOS

- a) Remanente de tesorería para gastos generales.
- b) Remanente de tesorería para gastos con financiación vinculada.
- c) Nuevos o mayores ingresos.
- d) Baja por anulación de créditos.
- e) Operaciones de crédito.

**Segundo.-** Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

EXPLICACIONES DEL SENTIDO DEL VOTO :

Josu Ezkurdia dice que para su grupo es una buena noticia porque, al igual que ha ocurrido con el proyecto del gimnasio del polideportivo, se sigue adelante con otro proyecto que ellos

pusieron en marcha en la anterior legislatura y que consideran que ambos proyectos son de gran importancia para el futuro de Eskoriatza. Por ello, insiste, en que se alegran y que votarán a favor.

## **5.- REPAROS INTERPUESTOS POR SECRETARIA-INTERVENCION ( abril -junio 2024)**

Dado que por la Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento han sido efectuados una serie de Reparos de legalidad a Resoluciones y acuerdos adoptados por la Alcaldía desde el 1 de abril al 30 de junio de 2024, de conformidad con lo dispuesto en el art. 218 del RDL 2/204 de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se eleva informe al Pleno para dar cuenta de la Resoluciones adoptadas contrarias a dichos reparos.

A continuación se hace una reseña de las resoluciones y los reparos de los que ha tomado cuenta el Pleno:

*REPARO Nº 4/2024: Buzoneo-Información sobre programa fiestas de San Pedro . No hay factura (140,00 €)*

*REPARO Nº 5/2024: Buzoneo-Información sobre programa MATXISMOARI PLANTO PROTOKOLOA . No hay factura (20,00 €)*

*REPARO Nº 6/2024 : Compra de bombonas para fiestas de San Pedro . No hay factura (147,00 €)*

*REPARO ANTE CANTIDAD INDEMNIZADA por elaboración del Estudio Hidráulico del río Deba en el ámbito de Kuartruena.*

El Pleno, con la asistencia de 10 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

### **INTERVENCIONES QUE SE PRODUCEN:**

Josu Ezkurdia , tras decir que en atención a que se trata de un importe de 6812 euros les ha extrañado, pide explicaciones en relación al reparo interpuesto por secretaria-intervención en relación al pago del Estudio Hidráulico del río Deba en el ámbito de Kuartruena.

El Alcalde explica que dicho estudio se ha tenido que elaborar por un particular para poder edificar un garaje en la parcela de su propiedad. Luego, dice: "Quien encargó la redacción del Plan Hidráulico ha solicitado al Ayuntamiento que se le indemnice por entender que dicho Plan correspondía haber hecho al Ayuntamiento, esto es, cuando se tramitó el Plan Parcial, que dicho Plan Hidráulico se debía de haber elaborado cuando se desarrolló urbanísticamente el ámbito de Kuartruena, y que con ese Plan Hidráulico las casas que quedan por edificar no necesitarán elaborar otro porque les servirá ese. Nosotros (se refiere al equipo de gobierno) creemos que tiene razón. Hay un informe en su día elaborado por el arquitecto asesor municipal y que creo que ya se dio traslado del mismo ¿no Eburne? ( La secretaria le responde que no sabe si se dio traslado o no de dicho informe a los corporativos) Bueno, el arquitecto emitió un informe en relación a dicha solicitud y en el mismo informaba que el Ayuntamiento tal vez en principio no tenía porqué pagar dicho Plan Hidráulico pero que

**2024/07/23**

**Ez Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Extraordinaria

también lo veía posible en atención a que en un futuro otros propietarios podría aprovechar el mismo.

Josu Ezkurdia: Entonces, este Plan se ha pagado a un particular por un asunto particular, y que además del informe urbanístico hay un informe de intervención en el que se considera dicho pago improcedente. En resumen, el asunto es que el Ayuntamiento no tenía porqué hacerlo y lo ha pagado.

El alcalde: El informe de secretaría está ahí, nosotros pensamos que el particular tiene razón porque entendemos que ese Plan lo debía haber elaborado en su día el Ayuntamiento.

Josu Ezkurdia: Pero jurídicamente no es así. Esa será vuestra opinión, pero por lo que se ve no es legal. Es esa la pregunta, si es legal.

El alcalde: Creo que jurídicamente ha sido legal

Josu Ezkurdia: Pero si la secretaria ha puesto un reparo es porque no es legal.

La secretaria manifiesta que ella ha emitido un informe concluyendo que el pago a su entender no es procedente.

El alcalde: Bueno, está el informe de secretaría, pero nosotros entendemos que es un Plan que en su día debiera de haber sido tramitado por el propio Ayuntamiento.

Terminan las intervenciones solicitando a la secretaria que remita a Josu Ezkurdia el informe del arquitecto y el de secretaría-intervención.

## **6.- CESIÓN EN PRECARIO DE LOCAL MUNICIPAL A LA ASOCIACIÓN DE JUBILADOS OLAZAR.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales y Deportes, el Pleno, por unanimidad, acuerda:

**Primero.-** Ceder a título gratuito y en precario a la "ASOCIACIÓN DE JUBILADOS OLAZAR" el uso de los locales municipales sitos en la calle Hidalga nº 1, para que lleve a cabo las actividades organizativas y administrativas de la Asociación.

**Segundo.-** Los locales se ceden por un plazo de un año, con las siguientes condiciones:

- 1.- Se ceden los locales hasta el 1 de septiembre de 2025, pudiendo ser prorrogable anualmente hasta que transcurran 5 años (hasta 01/09/2029).
- 2.- La Asociación Olazar podrá utilizar los siguientes locales: 2 salas (sala multifunción de la primera planta (compartida con txistularis) y sala de cartas junto al bar), la cocina, el despacho y la sala del podólogo. Dichos locales podrán ser utilizados para las actividades y las tareas administrativas de la Asociación Olazar.
- 3.- La asociación Olazar tiene el deber de conservar los locales en buen estado, realizar a su cuenta las reparaciones derivadas del uso inadecuado y, a la finalización del contrato, devolverlos en el mismo estado que en el que los recibieron. No podrá realizar obras sin autorización previa del Ayuntamiento.

4.- Si por razones de interés público el Ayuntamiento quisiera recuperar los locales, está legitimado para cambiar los locales cedidos por otros.

5.- Correrán a cargo del Ayuntamiento los gastos de electricidad, teléfono, agua y el de limpieza de los espacios compartidos con otros locales (pasillos, aseos...). La limpieza de la cocina correrá a cargo de la asociación Olazar.

6.- El Ayuntamiento, con el mismo carácter y en las mismas condiciones establecidas para los locales en el presente documento, cede el uso de los siguientes muebles:

- Oficina: una mesa, 2 sillas giratorias y 6 sillas.
- Sala del podólogo: una mesa, 1 silla, una banqueta y una "camilla".
- Cocina: 2 mesas y 20 sillas (1 a reparar).
- Aula multifunción.
- Sala de cartas: 4 mesas y 20 sillas.

7.- La asociación que recibe el local en precario se obliga a tener al día cuantas licencias y autorizaciones de organismos competentes en materia de sanidad, trabajo, educación, hacienda, o cualquiera otros, se precisen para el desarrollo de la actividad por ella pretendida y a suscribir un seguro de responsabilidad civil.

8.- Todas las comunicaciones que se produzcan con motivo de las actividades que se organicen en los locales cedidos serán en euskera o en euskera y castellano, tanto las escritas (carteles, folletos, notas...) como orales (bingo, presentación de acciones...). Además, en caso de realizarse en ambas lenguas, se dará prioridad al euskera.

La Asociación de Jubilados Olazar contará con la colaboración del Servicio de Euskera del Ayuntamiento para la traducción o corrección de cualquier texto a publicar.

9.- La entidad beneficiaria incorporará la perspectiva de género en las acciones que organice y cuidará especialmente la aplicación de criterios para una comunicación no sexista.

10.- OLAZAR ELKARTEA es una entidad de derecho privado sin ánimo de lucro, que en ningún caso depende del Ayuntamiento, que de manera alguna está en relación de dependencia respecto del Ayuntamiento, ni éste dirige la actividad a realizar en el local, ni le confía a Olazar elkarte ninguna actividad ni le presta conformidad ni aquiescencia alguna, limitándose a de ceder los locales, por lo que no se hace responsable ni directa, ni subsidiariamente de los daños tanto materiales como personales o morales que por acción u omisión de cualquier clase puedan producirse en el recinto de los mismos.

11.- El contrato se prorrogará anualmente, salvo denuncia de cualquiera de las partes. La denuncia deberá formularse con tres meses de antelación a la finalización del contrato.

12.- El precario se extingue por la reclamación de los locales hecha por el Ayuntamiento previo requerimiento a la Asociación con un mes mínimo de antelación, así como por devolución de los mismos por parte de aquella. Así mismo, será causa de extinción automática del contrato que los locales sean destinados a finalidades distintas a las señaladas en el acuerdo de cesión.

**Tercero:** Formalizar un contrato en el que queden recogidas las condiciones anteriormente fijadas y facultar al Sr. Alcalde para que formalice el mismo en nombre y representación del ayuntamiento de Eskoriatza.

## **7.- PROPUESTA DE NO ADMITIR A TRÁMITE EL PLAN ESPECIAL DEL PARQUE EÓLICO ITSARAZ.**

En fecha 26 de abril de 2024, mediante entrada nº 24-01095, se ha recibido en el Ayuntamiento de Eskoriatza escrito de DESARROLLOS RENOVABLES IBERIA OMICRON S.L. por el que solicita la tramitación del Plan Especial del parque eólico Itsaraz, adjuntando el documento de borrador del *“Plan Especial del Parque eólico Itsaraz entre Aramaio (Araba) y Eskoriatza (Gipuzkoa)”*, redactado en enero de 2024 por la arquitecta Larritz Sasiain y el geógrafo urbanista Marcos Segurola (KREAN S. COOP.), así como el *Documento Inicial Estratégico de la Evaluación Ambiental Estratégica del Parque eólico Itsaraz de 60,4 MW y sus infraestructuras asociadas en el País Vasco*, redactado por SAITEC Engeering en febrero de 2024, promovidos ambos por DR Iberia Ómicron S.L.U. (Grupo Statkraft).

**PRIMERO.-** RESULTANDO que, según informe jurídico y en base a la documentación presentada, el parque eólico Itsaraz planteado se sitúa en los municipios de Aramaio (Álava) y Eskoriatza (Gipuzkoa), con una infraestructura de evacuación que consiste en una subestación eléctrica a ubicar en Aramaio y una línea de alta tensión que discurre por los términos municipales de Aramaio (Álava), Mondragón (Gipuzkoa), Atxondo, Elorrio y Abadiño (Bizkaia), hasta conectar con una subestación eléctrica que existe en Abadiño (propiedad de Iberdrola Distribución) y siendo necesarias una serie de obras importantes para habilitar los accesos que se trazan por los términos municipales de Legutio, Arratzua-Ubarrundia y Aramaio (Araba).

**SEGUNDO.-** RESULTANDO que, conforme al citado informe, el trazado de evacuación del PE Itsaraz cuenta con 13,89 km de línea eléctrica aérea, soportados por 46 apoyos; y 0,48 km de línea soterrada, correspondiente a la aproximación a la SET Abadiño.

**TERCERO.** -RESULTANDO que la Memoria del Plan Especial presentado recoge que no se incorpora a la delimitación del ámbito de Parque Eólico la línea de evacuación, con el tenor siguiente:

**“LINEA DE EVACUACIÓN DE ENERGÍA ELÉCTRICA**

*En relación a la línea de evacuación, ésta no altera el uso del suelo y lo que genera es una servidumbre, por lo que el proyecto no requiere de una modificación de la zonificación urbanística previa.*

.....

*El objeto del Plan Especial es ordenar pormenorizadamente el ámbito delimitado, si la línea de evacuación no altera el uso del suelo, no tiene sentido incorporarla a la delimitación del ámbito del Plan Especial. El propio PTS EERR, aprobado inicialmente, distingue entre instalación eólica o fotovoltaica y líneas eléctricas, y establece que no son objeto de la zonificación las líneas eléctricas de evacuación, cuya valoración deberá realizarse a escala de proyecto, cuando se tengan definidos los detalles específicos”.*

**CUARTO.-** RESULTANDO que el Documento Inicial Estratégico (DIE) que acompaña al Plan Especial, según señala contempla todas las infraestructuras:

2024/07/23  
**Ez Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Extraordinaria

*“3.1 Descripción de las características del Plan Especial:*

*• La descripción de las características y acciones del Plan Especial está íntimamente ligada con las características del parque eólico que se trata de integrar urbanísticamente con el Plan Especial.*

*• Es por ello que, de cara a evaluar adecuadamente los efectos ambientales estratégicos que supondrá la aprobación del Plan Especial, debe hacerse referencia al conjunto del proyecto de parque eólico que quedará amparado por dicho Plan Especial. Es decir, a efectos ambientales, se contemplan todas las infraestructuras que se van a derivar de la implantación del proyecto, para su análisis estratégico, sin perjuicio del análisis a escala de proyecto que se está realizando en el pertinente trámite independiente de evaluación de impacto ambiental de dicho proyecto, que ya ha sido iniciado.*

*• De este modo, el proyecto del parque eólico objeto de ordenación se compone de los siguientes elementos principales fijos:*

- Aerogeneradores*
- Línea eléctrica*
- Viales*
- Plataformas*
- Drenaje*

*3.2 Aspectos relevantes de la situación actual del medio ambiente*

*Al igual que ya se ha comentado en la descripción técnica de los elementos que componen el PE Itsaraz, en el presente análisis medioambiental se han tenido en cuenta aquellos factores afectados por la implantación de cualquiera de las infraestructuras que componen el parque eólico (incluida la línea de evacuación), fuera parte de que el Plan Especial únicamente competa la ordenación de la zona de implantaciones de los aerogeneradores y la SET Itsaraz. Esto es así ya que se considera que se debe de tener una imagen realista de las afecciones que el PE Itsaraz conllevará para el medio ambiente en su conjunto. A pesar de que haya partes del mismo que no sean objeto estricto de la ordenación del Plan Especial”.*

**QUINTO.-** CONSIDERANDO que, conforme consigna el informe jurídico elaborado, la normativa reguladora de las actividades de transporte, distribución, comercialización, suministro y procedimientos de autorización y seguridad de instalaciones de energía eléctrica (Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre y Real Decreto 223/2008, de 15 de febrero), es evidente que las líneas eléctricas asociadas a la infraestructura que ordena el Plan Especial provocan modificación en el régimen de usos de los suelos por los que trascurren y a los que afectan.

**SEXTO.-** CONSIDERANDO que la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental, en el artículo referido al ámbito de aplicación de la evaluación ambiental estratégica (artículo 6 a), establece que la misma procederá, entre otros supuestos, cuando los planes y programas:

*“ Establezcan el marco para la futura autorización de proyectos legalmente sometidos a evaluación de impacto ambiental y se refieran a la agricultura, ganadería, silvicultura, acuicultura, pesca, energía, minería, industria, transporte, gestión de residuos, gestión de recursos hídricos, ocupación del dominio público marítimo terrestre, utilización del medio marino, telecomunicaciones, turismo, ordenación del territorio urbano y rural, o del uso del suelo”;*

Y que, en igual sentido, el Anexo II-A-6 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, que recoge el listado de planes y programas que han de someterse a evaluación ambiental estratégica, se pronuncia en idéntico sentido, estableciendo que tienen que ser objeto de evaluación ambiental estratégica todos los planes que vayan a ser marco para la autorización de proyectos que a su vez van a requerir evaluación ambiental.

**SÉPTIMO.-** CONSIDERANDO que, según el repetido informe jurídico, el marco de los proyectos de las líneas de evacuación asociadas al proyecto de energía eólica de Itsaraz tiene que ser forzosamente el plan especial que ordene pormenorizadamente los usos requeridos para la implantación de la infraestructura en el suelo no urbanizable.

**OCTAVO.-** CONSIDERANDO, en consecuencia, que la referencia del Plan Especial a que no se incluyen las líneas eléctricas de evacuación porque su evaluación se hará en fase de proyecto, choca frontalmente con las previsiones de la legislación ambiental vigente, las mencionadas leyes 21/2013 y 10/2021, y no puede amparar que el Plan Especial no contemple todas y cada de las instalaciones, desde los mismos aerogeneradores y las líneas eléctricas de evacuación hasta los caminos de acceso. De lo contrario, las instalaciones que no se ordenen en el Plan Especial quedarían sin cobertura urbanística para su desarrollo y no podrían evaluarse ambientalmente, haciendo imposible su ejecución.

La argumentación de la Memoria del Plan Especial para no incorporar la delimitación del ámbito los suelos correspondientes a las líneas de evacuación, se contradice con el propio DIE, el cual lleva a cabo la evaluación ambiental de las líneas de evacuación, y así se recoge en los apartados 3.1 y 3.2 arriba cosignados, pese a lo cual las mismas no hayan sido objeto de ordenación en el referido Plan Especial.

Resultando de todo punto inadmisibles que se evalúe ambientalmente unas infraestructuras que no han recibido ordenación en el documento de planeamiento a resulta de lo cual cabría preguntarse, qué líneas y torres se han evaluado, si no existe ordenación ni previsión concreta amparada en el documento de planeamiento.

Esta incongruencia deja patente sin embargo que la línea de evacuación y sus elementos, todos y cada uno de los elementos que supone la instalación deben ser evaluados, como no puede ser de otra manera.

En esa misma línea de argumentación, no hay más que ver el ámbito de actuación que considera el Plan Especial, una franja en forma de ameba alargada que une los distintos aerogeneradores, sin solución de continuidad. Es decir, no se ha contemplado el ámbito estricto de ocupación de los aerogeneradores sino que se ha contemplado un ámbito continuo a lo largo del que se desarrolla cada proyección de las instalaciones verticales.

El Plan Especial debe contemplar y ordenar pormenorizadamente la totalidad de las instalaciones asociadas al proyecto, todas las nuevas líneas de evacuación, aéreas o subterráneas, de que se va a valer para conducir la energía producida y todos los nuevos caminos y accesos de que se valdrán todas y cada de esas instalaciones y líneas aéreas o subterráneas.

**NOVENO.-** CONSIDERANDO que de conformidad con la doctrina jurisprudencial reiterada el derecho a la tramitación de los Planes quiebra en los casos en que el Plan proyectado viole de forma clara, palmaria y manifiesta el ordenamiento urbanístico vigente ---así los planes de superior jerarquía o las normas legales de aplicación directa---, pues en tal caso razones de

economía y de lógica imponen el inicial rechazo del proyecto al ser inviable o inútil la prosecución del trámite.

Cuando las deficiencias o defectos observados no puedan subsanarse o suplirse durante la sustanciación del procedimiento lo que jurídicamente procede es la inadmisión a trámite del documento.

El reparo fundamental y nuclear para no dar curso a la tramitación es que, el documento presentado infringe y viola de forma clara, palmaria y manifiesta de las normas legales de aplicación directa, singularmente, la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental y Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, al afectar a suelos y ámbitos al marqen de lo ordenado y regulado en el mismo.

Por todo lo antedicho, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económico Sostenible, y con el voto favorable de los 6 corporativos presentes de EHBILDU y la abstención de los 4 corporativos presentes de EAJ/PNV, el Pleno ACUERDA:

**INADMITIR** a trámite el Plan Especial del Parque eólico Itsaraz entre Aramaio (Araba) y Eskoriatza (Gipuzkoa ) presentado el 24 de abril de 2024 por considerar que concurre ausencia de un presupuesto sustantivo cual es que no contempla todo el objeto y los ámbitos asociados a las instalaciones que regula, singularmente, las líneas eléctricas de evacuación, los caminos, accesos y demás elementos imprescindibles para el desarrollo del parque eólico de Itsaraz. En definitiva, en base al artículo 6 de la Ley 21/2013 de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental, y al Anexo II-A.6 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración ambiental de Euskadi, no puede haber infraestructura cuyo proyecto requiera evaluación ambiental que no tenga base previa en un planeamiento que haya sido sometido a evaluación ambiental estratégica.

#### **8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se producen

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:20 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**